

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

2982

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 23koa, Justizia Administrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Donostiako Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesaleko Probintzia Auzitegiko lehendakariaren idazkari-lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa.

Donostiako Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalean, hutsik dago Probintzia Auzitegiko lehendakariaren idazkari-lanpostua (lanpostua: 580059; dotazioa: 1). Hori dela-eta, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duen 1451/2005 Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (abenduaren 27ko BOE, 309. zk.), aditzera ematen da lanpostu hori izendapen aske bidez betetzeko deialdia. Lanpostu horretan, eginkizun hauek bete beharko dira: kudeaketan lagundu eta agendez arduratzea; dokumentuak transkribatzea; bilerak, bidaiak eta joan-etorriak antolatu eta prestatzea; eta, oro har, laguntza ematea Probintzia Auzitegiko lehendakariari, beste edozein egiteko edo zeregin betetzen. Bestalde, lanpostu horren izena, kokalekua eta ordainsariak ebazpen honen eranskinean daude zehaztuta.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

Prozesu eta Administrazio Izapidetze Kidegoko karrerako funtzionarioek eskatu ahal izango dute deialdi honetako lanpostua, baldin eta, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean, jarduneko zerbitzuan edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozein egoeratan badaude.

Bigarrena.– Eskabideak.

Eskabideak aurkezteko, interesdunek hamar egun naturaleko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabideetan, datu pertsonalak eta gaur egun betetzen duten lanpostua adieraziko dituzte. Ebazpena BOEn eta EHAAan aldi berean argitaratzerik ez badago, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

Eskabideak Justizia Administrazioko zuzendariari zuzendu behar zaizkio eta Gasteiz, Donostia edo Bilboko EATetako sarrera-erregistroetan, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistro Nagusian (Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz) edo indarrean dagoen administrazio-prozeduraren arautegiak ezarritako moduan aurkeztu behar dira.

Eskabidearekin batera, curriculum vitae bat aurkeztu beharko dute, eskatzen diren betekizunen eta azaldutako merezimenduen egiaztagirien fotokopia konpultsatuz gain. Curriculum vitaean hauek adieraziko dira:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Betetako lanpostuak, bai administrazioan, bai enpresa pribatuan.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, argitara emandako lan zientifikoak, aurkeztutako txostenak, hizkuntzak, eta hautagaiek egoki iritzitako gainerako merezimenduak.

Hirugarrena.– Ebazpena eta destinoa esleitzea.

1.– Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 59. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, izendapena egin ahal izateko, lanpostu-zerrendetan lanpostuak daukan arduradunak txostena egin behar du, aurrez.

2.– Deialdi hau Justizia Administrazioiko zuzendariaren ebazpen baten bidez erabakiko da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gehienez ere bi hilabeteko epean eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea luzatu ahal izango da, salbuespenez, hilabete batez gehienez jota. Ebazpena BOEn eta EHAAn aldi berean argitaratzerik ez badago, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

3.– Izendatutako funtzionarioa destino berriaz jabetzeko, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua 52. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Destinoaz jabetu aurretik, interesdunak modu frogagarrian adierazi beharko du ez dagoela araudian ezarritako bateraezintasun-egoera bakar batean ere.

4.– Izendapena egin zuen agintariak berak kendu dezake lanpostutik izendatutakoa, diskrezionalki. Izendatutakoak ere uko egin diezaioke lanpostuari, eskabide arrazoitu baten bidez egin ere, betiere lanpostuan gutxienez urtebetez jardun baldin badu. Eskabidean, bestalde, ukoaren arrazoi profesional eta pertsonalak adierazi beharko ditu. Lanpostutik kendutako edo lanpostuari uko egindako funtzionarioa, behin betiko beste lanpostu bat lortu bitartean, behin behinean atxikiko zaio bere kidegoko beste lanpostu bati, udalerrri berean. Atxikitze horrek kargugabetzearen ebazpena edo ukoa onartzekoa eman eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Lanpostutik kendutako edo lanpostuari uko egindako funtzionarioak lehentasuna izango du, jardunean aritzen zen herriko lanpostu generikoak betetzeko, lehiaketara deitzen diren lehenengo aldi; gainera, herri horretan deitutako lanpostu guztiak eskatu beharko ditu. Lehiaketa horretan parte hartu ezean, edo lanposturik lortu ezean, behin betiko esleituko zaio esleitu gabeko edozein lanpostu.

Laugarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen. Beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua ezarri ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Gora jotzeko errekurtsua ezarri zenetik hiru hilabete igaro badira, eta ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 23a.

Justizia Administrazioiko zuzendaria,
MARÍA ISABEL GABRIEL BELLIDO.

2018ko ekainaren 8a, ostirala

ERANSKINA
LANPOSTU-ZERRENDA

Saila: Lana eta Justizia
Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioiko Zuzendaritza
Destinoko zentroa: Donostiako Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesalak

Lanpostua	580059	Dotazioa	1	Lanpostuaren izena	Probitzia Auzitegiko lehendakariaren idazkarria	Lanpostu-mota	B	Heria	Donostia	Betetzeko era	I.A.	Taldea	C	Kidegoa	Izapidetze Prozesal eta Administrazioa	Titulazio akademikoa	Batxilerra edo baliokidea	Berariazko ezagutzak	Hizkuntza-eskakizuna	2	Hizkuntza-bereitasunaren data	20-Urt.	Esperientzia		Lanpostuaren osagarri orokorra	3.043,68	Berariazko osagarria	6.900,00	Oharrak	
-----------	--------	----------	---	--------------------	---	---------------	---	-------	----------	---------------	------	--------	---	---------	--	----------------------	---------------------------	----------------------	----------------------	---	-------------------------------	---------	--------------	--	--------------------------------	----------	----------------------	----------	---------	--